Nazioarteko ikasketak zabaltzeko beken oinarriak
2024/2025 ikasturtea

Lehenengoa: beken tipologia eta modalitateak

SGAE Fundazioak, atzerrian ikasketak zabaltzeko prestakuntza-beken programa hau aurkeztu du 2024/2025 ikasturterako:

- Nazioarteko prestakuntza bekak antzezlanen sorkuntzan.
- Nazioarteko prestakuntza bekak koreografien sorkuntzan.
- Nazioarteko prestakuntza bekak gidoien idazketan.
- Nazioarteko prestakuntza bekak ikus-entzunezkoen zuzendaritzan.
- Nazioarteko prestakuntza bekak herri-musiken sorkuntzan.
- Nazioarteko prestakuntza bekak egungo musika klasikoaren sorkuntzan.

Aipatutako 6 beka-prometako bakoitzak hauek izango ditu:

- Beka integrala, gehienez 9.000 eurokoa, ikasturte oso baterako. Zenbatekoa hautatuaren matrikula-, egonaldi-, bidaia-, mantenu-gastuetarako eta abarretarako erabili beharko da.

- Eta gutxienez 6 beka partzial (gehienez ere, beka-proiektu bakoitzari esleitutako aurrekontu-partidak ahalbidetzen duen mugaraino). Beka horietako bakoitza 1.000 eurokoa izango da gehienez, ikasturte bat baino gutxiagokoak izango diren ikastaro, mintegi, master class, tailer eta abarretan parte hartzeko.

Bigarrena: eskatzaileak

1. Eskatzaileek SGAEko autore bazkide izan beharko dute, eta bekaren xede den prestakuntza emango den hizkuntzan maila egokia dutela egiaztatu beharko dute.

2. Ezein eskatzaile ezin izango da hautatu deialdi honetan aipatzen diren prestakuntza-programa baterako baino gehiagorako, eta, prestakuntza-programa beraren barruan, beka-mota bat baino gehiagorako.

Hirugarrena: prestakuntza-proiektuen tipologia eta bekaren zenbatekoa

1. Beken deialdi hau sorkuntza artistikoko eremu hauetara mugatzen da:

    - Antzezlanen sorkuntza: idazketa.
    - Koreografien sorkuntza: koreografia.
    - Ikus-entzunezkoen sorkuntza: gidoien idazketa eta ikus-entzunezkoen zuzendaritza.
    - Musikaren sorkuntza: herri-musikak eta egungo musika klasikoa.

2. Sorkuntza-eremu bakoitzean bi eskabide mota daude: beka integrala eta ikastaroetara, mintegietara eta abarretara joateko bekak. Edonola ere, eskabidearen xede den ikasketa-programa **2024ko ekainaren 1etik** aurrera hasi beharko da, eta gehienez ere **2025eko abenduaren 31n** amaitu.

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin

3. Eskatutako prestakuntza eskatzailea bizi den herrialdea ez den beste herrialde batean egin beharko da.

4. Eskatutako zenbatekoa kalkulatzeko, ikastaroaren matrikularen prezioa eta joan-etorrien kostuak hartuko dira kontuan, eta beka integralaren kasuan, mantenu- eta ostatu-kostuak ere bekaren xede izan ahalko dira.

Laugarrena: dokumentazioa

Eskabideek dokumentazio hau izan beharko dute:

1. Eskabide-inprimakia, behar bezala beteta.
2. IFZ/AIZ/Pasaportearen kopia
3. Eskatzailearen CV.
4. Bekaren xede diren ikasketei buruzko dokumentazioa.
5. Eskatzailearen gutuna, prestakuntza horren bidez lortu nahi diren helburu artistikoak azalduz.
6. Nazioartean prestigio aitortua duen atzerriko ikasketa-zentroan onartu izanaren egiaztagiria.
7. Gastuen aurrekontua.
8. Ikastaroa emango den hizkuntzaren ezagutza-mailaren egiaztapena.
9. Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzearen ziurtagiria, hala badagokio.
10. Egile eskatzailearen baimena SGAE Fundazioaren alde, hark, deialdi honen esparruan, bere datu pertsonalak erabil ditzan. Aurkeztu beharreko baimen-eredua SGAE Fundazioaren webgunean dago eskuragarri, beka honen deialdiaren atalean.

Bosgarrena: hautaketa-irizpideak

Jasotako proiektuak ebaluatzeko, irizpide hauek baloratuko dira bereziki:

1. Eskatutako baldintzak betetzea.
2. Prestakuntza-proiektuaren interesa.
3. Hautagaiaren merezimendu akademiko eta artistikoak.
4. Prestakuntza egingo den herrialdeko hizkuntzaren ezagutza-maila.
5. Prestakuntza ematen duen erakundearen prestigioa.

Beka jaso dezaketen proiektuen artean aukeratu behar denean, lehentasuna emango zaie aurretik SGAE Fundazioaren laguntzarik edo bekarik jaso ez duten bazkideei.

Seigarrena: eskabideen aurkezpena eta aurkezteko epea

Eskabide-inprimakia SGAE Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.es. Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak eskabide guztiak jaso izanaren agiria emango die bidaltzaileei, eta falta diren dokumentuak aurkezteko eskatuko die eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez dutenei. Oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duten eskatzaileek, gehienez ere, dagokion jakinarazpenetik aurrera hamabost (15) eguneko epea izango dute zuzentzeko. Epe horretan zuzenketa egiten ez badute, eskabidea ez aurkeztutzat joko da.

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin

2024/2025 ikasturteko nazioarteko ikasketak zabaltzeko beken eskabideak aurkezteko epea **asteazkenean, 2024ko martxoaren 27an** hasiko da eta **2024ko maiatzaren 17ko, ostiraleko,** 23:59ak arte egongo da zabalik. Epe horretatik kanpo jasotako eskaerak ez dira onartuko.

Zazpigarrena: prozedura eta eskabideen hautaketa

1. Ebaluazio Batzorde bat arduratuko da oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

2. Batzordeak erabakiko du bekak eman ala ez, eta bere ebazpena idatziz jakinaraziko zaie interesdun guztiei.

3. Batzordearen ebazpena apelaezina izango da.

Zortzigarrena: lankidetza formalizatzea

SGAE Fundazioak eta beka onartu zaion eskatzaileak berariazko lankidetza-hitzarmena sinatuko dute. Hitzarmen horretan, nahitaez, dokumentu honetan ezarritako Oinarriak jaso beharko dira, eta azalpen gisa, ondoren zerrendatzen dugun informazioa:

1. Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
2. Bekadun formazioaren hasieraren eta amaieraren epea.
3. Emandako bekaren zenbatekoa
4. Ordaintzeko modua.
5. Formazioaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa daraman materiala eta azken memoria).

SGAE Fundazioak hitzarmena formalizatzeko beharrezko dokumentazioa eskatuko dio bekaren onuradunari. Dokumentazio hori aurkezteko gehieneko epea bi (2) hilabetekoa izango da, SGAE Fundazioak eskatzen duenetik zenbatzen hasita. Hautatuak ez badu dokumentazioa epe horretan entregatzen, beka jasotzeko eskubidea galduko du. Aurkeztutako dokumentazio guztia alderdiek izenpetuko duten hitzarmenaren zati banaezina izango da, eta ez da itzuliko.

Era berean, SGAE Fundazioak bekaren onuradunari helaraziko dio aldeen artean sinatu beharreko hitzarmena. Onuradunak gehienez ere bi (2) hilabeteko epea izango du hitzarmenaren aleak sinatuta itzultzeko, laguntza kobratzeko ordainketa-agiriarekin edo fakturarekin (kasuaren arabera) batera. Epe horretan hitzarmena edo ordainketa-agiria edo faktura aurkezten ez badu, onuradunak beka galdu egingo du.

Bederatzigarrena: konfidentzialtasuna gordetzeko eta datu pertsonalak babesteko betebeharra

Aldeek proiektuaren kudeaketan ematen duten informazio guztia konfidentziala da, eta ezingo zaie hirugarrenei jakinarazi, ezta ezarritakoez bestelako helburuetarako erabili ere, indarrean dagoen legeriak ezarritako salbuespenak salbuespen.

Eskatzaileek euren borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, eta laguntzen deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko soilik erabiliko dira. Datu Pertsonalen Babeserako Oinarrizko Eskubidearen jabeak datu horiek Ikusteko, Zuzentzeko, Ezabatzeko, Mugatzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak ditu, eta baita Datuen eramangarritasun eskubidea eta Erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko eskubidea ere. Eskubideak gauzatzeko hona idatz dezake: Fundación SGAE, a la

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin

atención de Servicios jurídicos, calle Bárbara de Braganza, 7, 28004 Madrid. Idazkian izena eta abizenak adierazi beharko ditu eta baita gauzatu nahi duen eskubidea zein den eta eskubide hori gauzatzeko arrazoia ere. Idazkiarekin batera NAN/AIZ edo Pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat eta gaur egungotzat hartzen ditu. Datuak aldatuz gero, interesdunak berehala jakinarazteko betebeharra du.

Hamargarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak eskabidea aurkezteak berekin dakar isilbidez baldintzak onartzen dituela.

2. Eskatzaileak salbuetsi egiten du SGAE Fundazioa proiektua egin eta garatzearen inguruan eskatzaileak indarreko legeriaren gainean egin dezakeen edozein urratzek ekar diezaiokeen edozein erantzukizunetik.

Informazio gehiago nahi izanez gero: ayudas@fundacionsgae.org

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736